

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa eta komunikazio kanalak funtsezkoak dira, gure balio-proposamena bezero egokienetara helarazteko eta ekitaldiak arrakastaz gauzatzeko. "Aires del Sur" proiektuan, kanal horiek hiru helburu nagusi dituzte: bezeroak aurkitzea, gure proposamena ezagutzera ematea eta esperientzia osoa eskaintzea.

Banaketa-kanalak

Banaketa-kanalak dira gure produktua edo zerbitzua bezeroengana iristeko erabiliko ditugun bitartekoak:

1. Ekitaldiak tokian bertan

- Ekitaldi publikoak, gastronomia esperientziak eta tailerrak aurrez aurreko kontaktuan eskaintzen dira, musika eta dantza zuzenean.
- Horrek esperientzia sentzoriala eta parte-hartzailea bermatzen du.

2. Ekitaldi korporatiboak eta pertsonalizatuak

- Enpresa, embaxada eta ikastetxeentzako ekitaldiak tokiko espazioetan antolatzen dira, bezeroaren beharrak pertsonalizatzeko eta luxuzko esperientzia eskaintzeko.
- Banaketa hau kontratuen bidez kudeatzen da, eta ekitaldi bakoitza bezeroaren beharretara egokitua dago.

3. Merchandise eta produktuen banaketa

- Ekitaldietan bertan eta webgune bidez: abanikoak, kamisetak, loreak, sombrea eta pulserak bezalako produktuak.
- Webguneak aukera ematen du linean eskaera egiteko, eta postaz edo garraio-enpresa bidez jasotzeko.

Komunikazio-kanalak

Komunikazio-kanalak dira gure balio-proposamena ezagutarazteko eta bezeroekin harremana sustatzeko eta mantentzeko bitartekoak:

1. Sare sozialak

- Sare sozialetan parte hartzea, batez ere gazteentzako, esperientzia sentsorialak erakusteko bideo eta irudi bidez.
- Gure proiektuaren gain interesa dutenak erakartzea eta ekitaldien ikusgarritasuna hanidzea da helburua nagusia.

2. Tokiko komunikabideak eta aliatuak

- Tokiko egunkariak, aldizkariak eta turismo agentziak.
- Horien bidez, ekitaldi tematikoen berri zabaltzen da, eta bezero potentzialak berriak erakartzen dira.

3. Webgunea eta online denda

- Ekitaldiak erreserbatzeko eta merchandise produktuak erosteko plataforma bakarra.
- Bezeroek ordainketa segurua egin dezakete eta ekitaldietara sartzeko informazio guztia jasotzen dute.

Salmenta-kanalak eta bezeroarekiko harremanak

- Salmenta publikoak eta tailerrak webgunearen bidez eta bertako tokietan kudeatzen dira.
- Ekitaldi korporatiboak kontratu bidez kudeatzen dira, bezeroaren behar pertsonalizatuak asetzeko.
- Bezeroarekiko harremanak fase desberdinetan banatzen dira: pertzepzioa (marketin-kanalak), ebaluazioa (informazio xehea webgunean eta sare sozialetan), erosketa (sarreraren eta workshop-en salmenta), entrega (ekitaldi fisikoa eta merchandise bidalketa) eta salmenta ondorengoa (feedback jasotzea eta etorkizuneko ekitaldietarako bezeroarekin harremana mantentzea).